

www.noaia.com

# Noaia !!



JC Perezek disko berriena  
aurkeztuko du Sutegin



Joxe Mari Zaldia baserritarra

**“Nekazaritza ez dago  
egoera errazean”**

LOUIS VUITTON LAKARRAKA  
MOTOCICLISTAS

Handenak zure harrizkoak dira  
Santua deitzenak  
Munduko harrizkoak dira  
Makaluzkoak dira

Irazu kalea, 12-behea ☎ 943 362 887

**PLIS PLAS  
TXALO TA JOLAS**

**SANTUENEAN**  
eskubaloiko gunean  
**TXATXILIPURDI**  
"Euskal Karaokea"  
maiatzak 27 • 17:00

**Oharra:**  
Eguraldi txarra  
egingo balu, emanaldia,  
Santueneko elkartearen  
egingo litzateke.

Noaua!!

 **Lehiaketa**

The Pub Ibiltariaren abenturari bide emanez, iazko Santo Tomas egunean Bilboko Pio Baroja plazan zuzenean hartutako kontzertuaren grabaketa dakarkigu Oskorrik.

Kantu herrikoia beldumari taldeak eskaintzen dion hamargarren ale honetan kantuen play-backa eta partiturak ere jaso dira. **Maiatzaren 20an, Oskorriren lan berriaren ale bat zozketatuko dugu** [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com) helbidera e-posta igortzen dutenen artean.



 **Aurreko lehiaketaren irabazlea ROMAN MANTEROLA**

**Bidali e-maila [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com).**  
**Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).**

## Txirrikitutik !!

U surbilgo auzoetako jaien egitarauen barruan herriko gazteen euskal dantzen erakustaldiek ez dute inoiz huts egiten. Aurrekua, kalejira, soka-dantza, fandangoa edota arin-arina dantzaten duten gaztetxoek, une batez behintzat, jaietako protagonista nagusiak bilakatzen dira, argazkian agertzen direnak bezala. Joxean Labaienek 1985eko Santixabeletan ateratako argazki honetan (NOAUA! Kultur Elkarteko aurtengo egutegian dago argazkia), herriko pilotalekuan lau neskatxa gazte sardinerak dantzaten ageri dira, otar eta guzti. Ziur egon urte guztian entseguetan egindako lanak bere fruitua eman zuela herriko jaietan. Laurak alpargatak, gona urdina, alkandora zuria eta zapi koadratuarekin jantzita ageri dira. Ezagutu al dituzue? Ezkerretik hasita hona hemen lau dantzari fin hauen izenak: Ainhoa Gutierrez, Saioa Sarasola, Nagore Leoz eta Arantxa Bereziartua. Aurten ere seguru izango dugula gaztetxoek eskainiko dizkiguten dantza saioak ikusteko aukera.

Zalao Arnaiz Ibareguren



Argazkia: Joxean Labaien  
1985eko Santixabelak, Kaleberri

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzio@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

**NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

## Aurkibidea

JENDE UGARI ANDATZA EGUNEAN **5. OR.**

JOXE MARI ZALDUA BASERRITARRA **6. OR.**

AITZIBER ARANBERRI **8. OR.**

Hamar urtez atezain izan eta gero, Usurbil FT emakumezkoen futbol taldea uztea erabaki du Aitziber Aranberrik.



JC PEREZ, MAIATZAREN 12AN SUTEGIN **10. OR.**

ZUMARTE MUSIKA ESKOLA, ZUBIETAN **11. OR.**

SAGARDO EGUNAREN 25 URTEAK **12. OR.**

XABIER TELLO SUKALDARIA **13. OR.**

NOAUA.COM WEBGUNEAN **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



NEREA ZINKUNEGI

## 25. botiltzarra

**E**gin berri komunioa, gogoan dut lehen aldiz sentitutako alkoholaren zorabioa. Sagardo Eguna lehenbizikoz Usurbilen.

Grabatutako edalontzirik erosi beharrik ez zegoen, grabatu gabekorik ere ez. Dema plazan sei bat sagardo postu, gehiago ez, nire memorian behintzat, eta herriko jendea, gurasoak ez, haien inguruan. Gerturatu orduko, komunioa egin berri duen bederatzi urteko neska motza izan arren, sagardoa muxu-truk.

Ahizpa zaharrena eta biok ginen elkarrekin, eta elkarrekin ginela edan genuen lehenbizikoz sagardoa hiru lau bat aldiz jarraian. Frontoi atzeko parkera joan ginen gero, txirristarra, eta bertako kolore-burnizkoetan jolas-ten genbiltzala parrez hasi ginen biok inolako aitzakiarik gabe.

Konturatu ere ez ginen egin sagardoaren pozaz etxera

joan eta bazkaltzen ari ginen bitartean amak “hok moxkortuta datoz” attari esan zion arte. Bazkalostean, eguraldi ederra bazen ere, siesta egin genuen ahizpak eta biok.

Hogeita bost urte pasa dira ordutik, laaaa ostra!!!

Bada urtean bitan ikusten dudan herriko jendea, Eguberrietan eta Sagardo Egunean.

Dozena erdi bat urte daramazkit grabatutako edalontziak elkarren aldamenean jarriz kolekzio propioa sortu nahian. Ez da erraza, urte bereko lau edalontzirekin topatu izan naiz eta aurreko bi urtetakoak faltan. Erretzeko papera baita Sagardo Eguneko grabatutako edalontzia Coca-Cola botilaren ondoan.

Kontuak kontu, maiatzaren azken aurreko igande biharamunean goizean jaiki eta ajeak jota lanera goazela, Usurbilen hogeita bost urtez jarraian botiltzarra ospatzen dugula pentsatzeko arrazoirik bada. Eta?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo

### Ika-mika !!

**E**z dut arnasarik, ito beharrean aurkitzen naiz, zer egin jakin gabe. Negar egin nahi dut, negar egin behar dut, gorde ditudan zakarrak bota behar ditut... buaaa...

Zergatik nago horrela? Zer gertatuko ote zait? Epe baten ondoren horrela sentitzen naiz ia beti. Ez al nago eroso eta pozik daramadan bizitzarekin? Edota, zer falta zait? Ui!!

Polita da esaten ari zaidana, baina negargura gehiago ematen dit. Maitasun gehiago eman behar omen dut, umilagoa izan, oro har, bihotza bigundu behar omen zait.

Nola? Ni, nire ingurukoentzat hoberena nahi dudana, maitasun gehiago eman behar dudala esaten?

Niri? Umilagoa izan behar dudala?

“Maitasun falta ikaragarria duzu, noiz da bihotzez esan duzun azken hitza? Noiz, zure ingurukoren bat, zurekin haserretu eta entzun diozun une bakarra? Isilik, esaten duenari erantzun gabe, okerragoak bota gabe, isilik, ezer esan gabe, agian arra-

zoi pixka bat duela adieraziz? Noiz?

Etxe zoragarria duzu, kotxea noski, ordenagailua, eta maitasuna? Hitz potoloa da, non gordetzen duzu? Lekurik ba al du zure agendan.

Egun eguzkitsuetan, bai... ze ondo, ondo aurkitzen zara zurekin eta zure ingurukoekin, eta txarrak dituzunean? Ez al da orduan maitasun gehien behar duzun momentu egokia? Eta jasotzen al duzu?

“Ez, ezta?” Aaa... zer egin dut nik hau jasateko! (galdetzen diozu zeure buruari) “eta nik, hitz egiten dizun honek, esango dizut. Eta zuk, zer egin duzu zure bikotekide, seme edota ingurukoren batek egun txarrak dituzunean... lagundu al diozu? Zerbait egin al duzu, bera hobeto sentitzeko? Edota, bere altueran jarri eta okerrago bukatu duzue?...”

Ai maitia... asko ikasi beharra duzu... umila izaten, aldeko ezer eskatu gabe, maitekorra izaten, bestela... txiki... berdin jarraituko duzu edota okerrago.

Hori ezinezkoa da! Oso zaila da! Esaten

duzu... noski!!! “Oso zaila da, haserretzea baita bide errazena, urtetan praktikan jarri duzun metodo bakarra. Pixkanaka, saiatu zaitex, eta emaitzak jasotzean, bihotza ize-neko altxorra, geroz eta handiagoa bihurtuko da. Zoriontasuna zure itzala izango da. Bide luze eta zaila da, lortuko duzu”.

Atzo nire maitearekin haserretu nintzen, lanetik etorri eta muturrez egongo nintzateke beste bi egunez, baina gaur ez dut hori egingo... ui! Badator... zer egingo dut... urduri nago...

Gabon –esan dit.

Kaixo maitia! – hori esan eta segituan, inoiz eman diodan besarkadarik handiena eman diot, ze zoragarria, ji, ji... oso ondo aurkitzen naiz.

Barkatu atzokoa, ez nuen ondo jokatu – esan dit berak. Ezinezkoa! Bera barkamena eskatzen!

Barkatu niri ere, egia esan, nik ere ez nuen oso ondo jokatu...

Labrit Zabala

# Jende ugari Andatza Egunean

**E**guraldi onari esker, lagun asko bildu ziren maiatzaren 7an Andatzen. Beti bezala, Andatza taldekoek hamaiketako banatu zuten mendizaleen artean. Zizurkildarrak ere Andatzen izan ziren. Haurrentzako jolasak, hain zuzen, Zizurkilgo Ziotza taldeak antolatu zituen.



## Ika-mika !!

### Udarregi Ikastola: Batzar Orokorra

**G**aur arratsaldean Udarregi ikastola irakaskuntza kooperatiba elkartearen urteko ohiko batzarra egin dugu.

Urtero bezala, Udarregiko artekaritzako kide eta zuzendari den Mariaje Imazek, ikastolaren funtzionamendu orokorra, ekonomia eta aurrekontuen azalpen zehatzak eskaini dizkigu, besteak beste.

Ikastolak 351 bazkide ditu guztira eta horietatik 319 bazkide erabiltzaileak edo gurasoak gara.

Batzar honetara gerturatu garen 30 pertsonetatik, 13 bakarrik ginen gurasoak. Guztiz penagarria!

Etzeratu ostean nire burutazioak idatziz adierazteko beharra sentitu dut. Hemen doaz. Ez dira asko baina konpartitu nahi ditut.

Usurbilgo herrian eskola bakarra dugu eta haur gehienak hemen eskolaratuak

izanik (Udarregi ikastolan), ze ondorio mota atera behar da datu horiek ikustera-koan?

Ea al gaitu kezkatzen gure seme-alaben hezkuntzak? Ala, ikastolaren erabateko konfiantza dugunez gero, ez dugu batzarretara joateko premiarik ikusten? Ez bata eta ez bestea! Kritikoak izaten abilak gara denok baina behar ez den lekuan, okerre-koan: parkean, kalean, dendan...? Erraza da gure iritzia botatzea eta kito. Ez da nahikoa! Erabaki zuzenak hartzeko nahitaezkoa da martxan ditugun organoak balekoak egitea eta behar den bezala erabiltzea.

Hezkuntza mundua denok osatzen dugu; gurasoak, irakasleak, ez dozentekak, ikasleak... Denon partizipazioa ezinbestekoa da. Hezkuntza mundua bizia da, eguneroko eginkizunetan oinarritua. Familia eta eskolan lantzen diren helburuak uzta-

tuz osatuko dugu etorkizuneko jendartea.

Bai, inplikazioa eskatzen du, sakrifizio pixka bat, konpromisoa maila batean, baina ze gutxiago! Gure seme-alaben etorkizunaz ari gara mintzatzen, beraiek hezitzen dituen eskolaz. Ez al du pena merezi guzti horrek? Baietz deritzot eta nahiz txikia izan eskaini dudana aportazioa, erreleboa beste guraso bati pasata, banoa. Ez urrutira, hurbil izango nauzue, behar duzuenean laguntzeko beti prest.

Ordezkatu gaituzten guraso eta irakasleei ongi etorri eta animoak! Eta oraindik artekaritzatik pasa ez diren gurasoei gauza bakarra esan nahi diet: **une bakoitzak erakusten duelako denon aportazioak dira beharrezkoak.**

Itziar Basterrika

## Joxe Mari Zaldua, Sari baserrikoa

# “Erribera honetan ni bakarrik izango naiz lurretik bizi dena”

**G**ertu dugu San Ixidro eguna. Nekazarien egun handia denez, honakoan, Aginagako erriberara jo dugu. Sari baserrin topatu dugu Joxe Mari Zaldua. Ezkor sumatu dugu eta nekazaritzaren etorkizuna beltza dela adierazi digu. Gizartea aldatzen ari dela eta letxua, esate baterako, gero eta gutxiago saltzen dela dio. Irabazi-iturri berriak bilatu nahian, jateko sagarra eta babarruna landatzen hasi da orain.

**NOAUA!** Oker ez banago, nekazaritzatik bizi zarete. Abeltzaintza aspaldi utzia duzue, ezta?

Joxe Mari Zaldua. Lehen, garai batean baserrietan ganadua zegoen. 10-12 behi. Baina hori pikutara joan da.

Duela hogeitau urte negutegiak jarri nituen ganaduaren alternatiba bezala. Baina gizartea asko aldatu da. Letxua gero eta gutxiago saltzen da. Orain, garbituta, zatituta eta poltsetan datoren letxu hori da saltzen dena.

### JOXE MARI ZALDUA

“Letxua, tomatea eta piperra landatzen dugu. Orain sagarrarekin hasi gara”

**N.** Baina enpresa horiek nonbait erosiko dituzte letxuak?

**J. M. Z.** Han beheran, Espainia aldean. Letxu-poltzarena oso eroso da. Poltsa ireki eta platerera. Listo. Inberraderoko letxua garbitzeak ez du lan handirik baina erosotasun kontua da.



BABARRUNA ETA JATEKO SAGARRA LANDATZEN HASI DA JOXE MARI ZALDUA.

Gizartea horrela dago. Grazia ematen didate ekologismoari buruz hitz egiten dutenak. Herri aldamenen errausketa-planta jarri behar dutela diotenean orduan hitz egiten dugu ekologismoaz. Eta letxu-poltsa horiek zer dira? Dena plastikoa da; dena kontsumoa da. Gu behintzat letxuarekin nahikoa zaharkituta geratzen ari gara.

**N.** Letxuaz aparte, zer da lantzen duzuen.

**J. M. Z.** Letxua, tomatea eta piper *txorizeroa*, prejituta jateko. Orain sagarrarekin hasi naiz baina jan-sagarrarekin, ez sagardo-sagarrarekin. Kiwia ere landatu dugu. Egia esan, nekazaritza ez dago egoera errazean.

**N.** Jan-sagarraren aldeko apostua berria al da?

**J. M. Z.** Niretzat bai. Bere lanak ditu baina kalitatezkoa eginez gero, estima-

tzen du jendeak. Sagardo-sagarraren aldean, bere lanak ditu jatekoak.

**N.** Babarruna landatzen ere hasi behar duzu.

**J. M. Z.** Lehen aldiz izango da. Ez dizkigu arazoak konponduko baina laguntza bat izan daiteke. Oraintxe bertan, egia esan, ez dakigu ze landatu.

**N.** Noraezean al dago nekazaritza sektorea.

**J. M. Z.** Guztiz. Lur-sailak ditugu eta etekin bat atera nahian gabiltza baina ez dakigu nora jo.

**N.** Inguruko baserritarrak ere kezkatuta sumatzen dituzu?

**J. M. Z.** Erribera honetan ni bakarrik izango naiz lurretik bizi dena. Gainontzekoak beste lan batzuk dituzte, edo denborapasan aritzen dira.

(Hurrengo orrialdean darrai)

(Aurreko orrialdeetik dator)

N. Garai hobeak ezagutu dituzu, beraz.

J. M. Z. Bai, bai. Dudarik gabe.

N. Baina laguntzarik jasoko duzue.

J. M. Z. Telebistan, Ibarretxe eta azaltzen direnean, orduan esaten dute lehen sektoreari lagundu egin behar zaiola. Baina laguntzak gero eta gutxiago daude. Aurreko astean hitzaldi batean izan nintzen Fraisoron (Villabonan). Ekoizpen integratuari buruzko hitzaldia izan zen: ez ekologikoa, ez tradizionala, tarteko zerbait. Dirulaguntzen gainean hitz egin zen eta Suitzan gobernuak dirulaguntza bidez asko laguntzen duela esan zen. Hona hori ailegatzan ez bada, ez dakit nik... Esplotazio handiak eta kito. Txikiok jai dugu.

## EKOIZPEN EKOLOGIKOAZ

“Oso polita da baina  
nik ekoizpen ekologikoan  
ez dut sinesten”

N. Ekoizpen ekologikoarekin egon zen *boom* modukoa. Bide hori aztertu al duzue?

J. M. Z. Oso polita da ekoizpen ekologikoarena baina nik ez dut horretan sinesten. Badaude produktu batzuk ekologikoki lortzea daudenak. Baina nik ez dut asko sinesten. Gauza batzutan akaso bai. Sagarrekin gertatu izan da. Batzuk esaten dute, ‘*guk ekologikoa nahi dugu*’. Sagar ekologikoak, ordea, harrak izan ditzake. ‘*Baina harrik ez dugu nahi*’ entzun behar. Ekologikoa nahi duzue baina harrik gabekoa, orduan zer nahi duzue?

N. Kontraesan asko ditugu.

J. M. Z. Akaso ezjakintasunetik ari naiz hizketan, baina gehiago saltzeko kontua da ekologikoarena.

## Bi egunez luzatuko dira San Ixidro eguneko ospakizunak

**A**urten, astelehenarekin egokitu da San Ixidro. Hori dela eta, bi egunetan ospatuko da nekazarien eguna. Bezperan, maiatzaren 14an, azoka egingo da Usurbilgo frontoian. Haurrentzat ere izango da jolasik. Eta festa borobiltzeko, herri kirolak. Herrialdeetako aizkolari lehia jokatu da Dema plazan. Baserritarren bazkaria, ordea, biharamunean ospatuko da, nekazarien egun handian.

### Maiatzak 14 igandea

11:00-14:00: Azoka, herri kirolak eta haurrentzat ekitaldiak.

Harrijasotzailea Goenatxo II izango da. Herrialdeetako aizkolari lehia ere jokatu da Dema plazan. Lehian arituko diren bikoteak hauek:

Gipuzkoatik: Agite - Zubizarreta.

Bizkaitik: Bihurri - Mendieta.

Arabatik: Zubillaga - Llanos.

Nafarroatik: Flores - Rodríguez.

Osatu beharreko lana, hauxe:

- Kana erdiko 4 zutik.

- Kana erdiko 4 kolpeka.

- 4 oin bikoa txanda librean.

- 6 kana erdiko txanda librean.

Loreak eta landareak salgai

Udaberriko loreak eta baratzekeo landarea erosteko aukera ere izango da maiatzaren 14ko azokan.

### Maiatzak 15 astelehena San Ixidro Eguna

11:00etan meza nagusia.

Ondoren hamaiketako Andazpe elkartean (bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira).

Baserritarren bazkaria, ordea, Saizar Sagardotegian egingo da, eguerdiko 14:00etatik aurrera.

Prezioa: 25 euro.



UDABERRIKO LOREAK ETA BARATZEKO LANDAREA EROSTEKO  
AUKERA IZANGO DA MAIATZAREN 14KO AZOKAN.

# “Belaunaldi berrien garaia da”

Hamar urtez atezain izan eta gero, futbol taldea utzi du Aitziber Aranberrik

**U**surbil Futbol Taldeak emakumezkoen taldea jarri zuen martxan duela hamar urte. Ordutik hona, Aitziber izan da taldean jarraitu duen bakarra. Eta beti hamaiakakoan. Aitziber Aranberri eta beste hamar jokalarari zelairatu izan dira. Atezain bakarra izateak baditu bere abantailak. Entrenatzaileek buruhauste bat gutxiago izan dute urteotan. Atepean zalantzarik ez zen. Aitziber atezain. Datorren urtean, ordea, hamaiakakoa osatzea ez da hain erraza izango. Aitziber Aranberrik taldea uztea erabaki du. Datorren denboraldian, beste bat izango da atepEAN arituko dena. Berak dioen bezala, “belaunaldi berrien garaia iritsi da”.

NOAUA! Nolatan hasi zinen futbolean jokatzeko?

Aitziber Aranberri. Zelai handian hasi baino lehen, ikastolan hasi ginen areto-futbolean, bosgarren mailan edo. *Plaieroetan* urtebete egin genuen Donostian eta gero futbol handian hasi ginen jokatzeko.

N. Txapelketarik irabazi al duzue ala denbora pasan aritu izan zarete?

A. A. Behin, Kopa Txapelketan, final-



TALDEA OSATU ZENETIK HONA, USURBIL FT TALDEKO ATEZAINA IZAN DA AITZIBER ARANBERRI.

aurrekoetara iritsi ginen. Penaltietan sailkatu ginen finalaurrekoetara. Dena den, beti denborapasa moduan hartu izan dugu futbola.

N. Eta hasieratik atezain. Zergatik?

A. A. Ikastolan besterik ez zegoelako.

Areto-futbolean Nagore zen atezaina baina futbol handira pasa ginenean ez zen animatu eta ni jarri nintzen. Futbolean jokatzeko ez nintzen ona eta ni jarri nintzen atezain.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Ariztitxo 8, behea · 943 563 348 · 609 888 021

 **LABE-GOXO**

Kale nagusia, 10.  
Telf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. © 943 362 725

**J.ORBEGOZO**

**ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA**



BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

**ITURGINTZA**

**JOSEBA ARANGUREN**

☎ 943 830 072  
☎ 659 883 912

**BITXI Tailerra**

**urro eta zilar lanak**

☎ 943 422 349



N. Hamar urtez taldeko atezaina izan zara. Gustura aritu zaren seinale.

A. A. Bai, ni oso gustura egon naiz. Hasieran atezain txarra nintzen baina urteak aurrera egin ahala neurria hartu nion atezain postuari.

N. Lagunekin hasi zinen futbolean baina lagunek taldea uzten joan ziren eta beste jokalaririk batzuk iritsi ziren. Akaso politagoak izan ziren haserako urteak zuretzat.

A. A. Koadrilako neskak hasi ginen. Baina gerora taldean sartu direnekin ere ondo moldatu naiz. Ezberdina zen hasieran, lagun-taldekoak ginelako gehienak. Baina gainontzekoekin ere primeran pasa dut.



HARITZ ZUBIAUR, IÑIGO PAGOLA, XABIER PAGOLA ETA JOSU ARANBERRI IZAN DIRA BERE ENTRENATZAILEAK.

**AITZIBER ARANBERRI**

“Datorren denboraldian ez dakit taldea aterako den; azken partidetan 12 jokalaririk bakarrik bildu izan gara”

N. Taldea utzi berri duzu. Zer nolako etorkizuna du emakumezkoen taldeak?

A. A. Duela hamar urte osatu zen taldea. Datorren denboraldian, ordea, ez dakit talderik aterako den. Azken partidetan 11-12 jokalaririk aritu izan gara. Baina taldean geratu direnek esaten dute aterako dutela taldea, eta hala izatea espero dut.

N. Azken urteotan, anaia izan da zure entrenatzailea. Gainerako taldekin aurrean, eroso izan al da?

A. A. Kontua da ni izan naizela taldeko atezain bakarra. Ez da egon ordezko bat. Ez dira postu baterako bi atezain egon. Beraz, ez da deserosoa izan.

N. Azken partidaren lore-sorta jaso zenuen. Espero al zenuen?

A. A. Ez nuen espero, egia esan. Koadrilakoak izan ziren. Partida hasita iritsi ziren eta builaka hasi ziren; orduan ikusi nuen pankarta. Partida bukatu zenean lore-sorta oparitu zidaten eta ilusio handia egin zidan.

**“Nekatu egin naiz”**

N. Zergatik utzi duzu taldea?

A. A. Nekatu egin naiz. Astebururo batetik bestera ibili behar duzu. Nik uste dut belau-naldi berrien garaia iritsi dela. Dena den, ez da bapateko erabakia izan. Azken hiru urteotan uzteko izan naiz baina atezainik ez zen eta horregatik jarraitu dut jokatzen orain arte.

IMANOL UBEDA \_\_\_\_\_

**MAHUKA**  
ETXEBESTE KALEA, 3 - 943 361 106

Hemen aurkituko duzu gizon eta emakumezkoen **MODAKO ARROPA**

Industri eta iragarki  
**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**

**JOSU**

943 371 954  
USALDEA POL.36-2-USBIL

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USBIL

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKERTAK • FORDAK • PUBTA

**www.noaua.com**  
USBILGO ATARIA

**milorri**  
lokalizazio ekologikoa

mantenimendua, diseinua eta aholkularitza

Borda berri, 10 - Usurbil  
☎ 660 154 114 / 699 152 262  
milorri@usurbil.com

## Maiatzaren 12an ostirala JC Perez Sutegin

**B**este musikari batzuentzat kantu garaikideak idazten eman ditu azken bost urteak. Eta pianoa jotzen. Baina halako batean, 2001ean Tolosako Leidorren emandako kontzertu baten grabazioa entzun zuen, eta pena sentitu zuen saio bakar bat ez zutelako grabatu. Hala adierazi zuen disko berriaren aurkezpenean eskaini zuen prentsaurrekoan: «jazz eta soul kutsua zuen emanaldi hark, eta pentsatu nuen haize sekzio bat gehitzea, jazz sonoritatea indartzeko eta zuzenean grabatzeko», azaldu zuen JC Perezek.

Egitasmo horren emaitza da "Hiriko istorioak", zuzenean grabatu duen diskoa. Lan hauxe aurkeztuko du zuzenean JC Perezek Sutegin.



"HIRIKO ISTORIOAK" DISKOA  
AURKEZTERA DATOR JC PEREZ.

**Noiz:** maiatzak 12 ostirala.

**Non:** Sutegin, 22:30ean.

**Sarrerak:** alde zuzenetik, 8 euro  
Oiarde kiroldegian. Egunean bertan  
takilan, 10 euro.

**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.

## Danborradako entseguak

**A**urreko alean aipatu genuen bezala, haur danborradan izena emateko epea maiatzaren 5ean amaitu zen. Dena den, entseguak maiatzaren 12an hasiko dira, Agerialden, 17:15etik 18:00ak arte. Eta horrela, ostiralero.

Helduak, ordea, izen ematearekin batera hasiko dira jaietako danborradako entseuetan. Hauek ere, maiatzaren 12an hasiko dituzte beren danbor-saioak, eta egunean bertan eman beharko dute izena. Agerialden bilduko dira, baina iluntze partean, 20:30etik 21:30era (aurrerantzean ere, ostiralero ordu horretan bertan).



## "Larru haizetara" antzezlaneko aktoreen curriculum-a

**J**exux Artze Taldeak antolatu du "Larru haizetara" antzezlan, maiatzaren 13an Sutegin ikus ahal izango duguna. Bi aktoreen curriculum-a bezain barregarria bada antzezlan, ez galtzeko moduko saioa izango da. 22:30ean hasiko da. Sarrerak salgai Lizardin eta Mahukan. Aurretik 8 euro; egun berean eta takilan 10 euro.

### Patxo Telleria (curri-lingus)

Euskal aktoreen eredugarri, EGBko lehenengo mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako antzezlanean.



EGBko bigarren mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako ikuskizunean. EGBko hirugarren mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako ikuskizunean. EGBko laugarren mailan arbolarena egin zuen kurtso bukaerako ikuskizunean. EGBko bostgarren


mailan ez zen arbolik egon kurtso bukaerako ikuskizunean, eta horrela bukatu zituen bere ikasketak.

Atzera pausu hau kolpe latza izan zen, baina handik urte batzuetara Madrilen profesional gisa debutatu zuen "Eloisa está debajo de un almendro" antzezlanean, almendrondoren paperean. Geroko lanak dira: "El Jardín de los Cerezos", "Gernikako Arbola" "Alamoko bataila", "Urkatuaren arbola"...

Bere antzetzenei esker, 1991ean, Adolfo Marsillach-ek dirusari bat eskaini zuen hil ala bizirik harrapatuko zue-nari. Geroztik Bilboko parkean bizi da, "magnolioz" kamuflaturik.

### Mikel Martinez (curri-culum)

Aktore enblematiko honek, antzerkigintzan hasi baino lehen, modelo lana egin zuen Picasso-rentzat.



Honela eman zitzaion hasiera kubismoari.

1982an Pinocho-ren papera egin zuen Maria Gerrero antzokian, Gepetoren atsekaberako. 1983an "Cirano de Bergerac" antzetzte zuen Amparo Rivellesekin, eta Amparo Rivelles bizirik irten zen hortik. 1985etik 1989ra Teatro Realean egon zen, arropazaindegian, sudur makoan abriguak eskegiten, erabateko arrakastarekin, hala kritika nola publikoarena.

1992an Egiptoko gobernuak "Esfinge"-aren sudurra lapurtu izana leporatu zion. "Karbono 14" frogak bere errugabetasuna erakutsi zuen.

Artistikoki telebistan jo zuen gailurra "Kleenex"-en anuntzio ospetsuarekin.

Kritikoen iritzi, bere itzelezko pituitaria ez da sekula izan arazo bat antzetzeko orduan. Arazoa bere talentorik eza da.

[www.euskalnet.net/mimar/biko/larru.htm](http://www.euskalnet.net/mimar/biko/larru.htm)  
webgunetik jasoa.

# Musikarekin jolastu nahi?

## Orain Zubietan ere bai

**D**atorren ikasturtean, Zubietako haurrek musikarekin "jolasteko" txoko berri bat izango dute Eskola Txikian. Zumarte Musika Eskolak "Musika Txokoa" zabaltzeko asmoa du eta dagoeneko martxan da aurre-matrikulazio kanpaina.

2006-2007 ikasturtean musikarekin dantzatu, abestu eta jolastu nahi duten zubietar haurrek ez dute zertan Usurbila joan beharrik izango. Zubietako Eskola Txikian bertan musikaz gozatu ahal izango dute. 4 eta 7 urte arteko haurrei musika eskolak jasotzeko aukera eskainiko zaie.

Bereziki adin hau duten ikasleei irakasteko irakaslego egokia du Zumarte Musika Eskolak. Era honetako eskolak emateko prestaketa berezia jaso duten irakasleak.

Izena ematen duten haurrek astean behin ordubeteko saioa jasoko dute. Eta aurrerago, instrumenturen batekin hasi edota abesbatzan aritu

ahal izango dira.

Informazio gehiago Zumarte Musika Eskolan jaso daiteke (Kale Nagusia 45, Usurbil). Aurre izen-ematea laster zabalduko da. Maiatzaren 15ean hasi eta 19an amaituko da: astelehen, astearte eta ostegunetan, goizetan, 10:00etatik 12:30era.

Astearte, ostegun eta ostiraletan arratsaldean, 16:30etik 19:00etara.

### MUSIKA TXOKOA

"Astean behin, ordubeteko saioa jasoko dute izena ematen duten haurrek"

Telefonoz ere deitzeko aukera dago: 943 37 15 94. E-mailez, honako helbidean: [zumarte@euskalnet.net](mailto:zumarte@euskalnet.net) (haurraren izen-abizena eta jaioteguna, gurasoen izen-abizenak eta telefonoa zehaztu).



IAZ 20 URTE BETE ZITUEN ZUMARTE MUSIKA ESKOLAK.

### Zumarte Musika Eskolakoak Mungian

**M**aiatzaren 12an, Zumarte Musika Eskolako Kitarra-Piano Taldea, Txistu Taldea, Talde Instrumentala eta Trikitixa-Pandero Taldea Mungiara (Bizkaia) joango dira Santos Intxausti Musika Eskolarekin trukaketa-kontzertua eskaintzera. 45 ikasle inguru izango dira Usurbildik abiatuko diren ikasleak eta Mungiako "Torre Billela" Kultur Etxean eskainiko dute kontzertua arratsaldeko 19:00etan.

Mungiako ikasleak, aldiz, gure artean izango dira Soinurbil musika astearen barruan: maiatzaren 26an Sutegin.

## Datorren astean hasiko da II. Soinurbil Musika Astea

**S**oinurbil Musika Astearen bigarren edizioak ekitaldi aipagarriak jasoko ditu bere baitan. Datorren asteko aldizkarian zehatz mehatz aipatuko ditugu ekitaldi denak baina hemen dituzue nabarmenenak.

### "Pirineos Jazz" taldea

Maiatzaren 19an arituko dira Sutegiko auditorioan. Talde honen ikuskizuna oso ona dela esan digute Zumarte Musika Eskolakoek. Emanaldi pilo bat eskaini dute

Euskal Herrian barrena. "Tam Tametik Tom Tomera" kontzertu didaktikoa eskainiko du Pirineos Jazz taldeak Usurbilen.

### Organo kontzertua

Maiatzaren 25ean egingo da organo kontzertua Salvatore elizan. Nabarmenezko ekitaldia, laster Usurbilgo organoa konpontzen hasiko baitira eta konponketak bi urte iraungo ditu. Beraz, berritze-lanak hasi aurretik egingo den azken kontzertua izango da maiatzaren 25ekoa.

### Galizako dantzariak

II. Soinurbil Musika Astean dantzarako tarterik ere izango da. Galizako Anduriña Dantza Taldea eta Zumarteko ikasleak Sutegin arituko dira maiatzaren 27an.

### Perkusio kalejira

Dagoeneko entsegu ugari egin ditu Zumarte Musika Eskolan biltzen den perkusio talde honek. Musika Astean egingo dute lehen zuzenekoak. Kalejiran ibiliko dira maiatzaren 27an.



## Sagardo Egunaren XXV urteak erakusketa batean bildurik

**E**gun hauetan, Sagardo Egunari buruzko erakusketa topatuko duzue Sutegin. Aurten XXV. urtea beteko du Sagardo Egunak. Aurreko edizioetako irudiak aurkituko dituzue erakusketan. Ez irudiak bakarrik. Baita prentsa-oharrak, kartelak, edalontziak...

Erakusketarekin batera, XV. urteurrenean egindako laburmetraia ere etengabe egongo da ikusgai. Aurreko urteetako edalontzi grabatuak erosteko aukera ere izango dute erakusketara hurbiltzen direnek. "Sagardo Egunaren XXV urteak" izenburupean zabaldu den erakusketa hau Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatu du.

Maiatzaren 1etik 21era egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango



SAGARDO EGUNEAN ERE ZABALIK IZANGO DA ERAKUSKETA.

du: asteleheneretik ostiralera, 18:30etik 20:30era; larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era; eta igandetan, 12:00etatik 14:00etara.

## "Sagarrondotik dator sagardoa", aurtengo Bertsopaper Lehiaketako gaia

**S**agardo Egunaren ospakizunekin bat egingo du aurtengo Bertsopaper Lehiaketak. Beste urte batzuetan gaia librea bazen, honakoan sagardoa izango da bertsoak idazteko zehaztu den gaia: "Sagarrondotik dator sagardoa". Beste berrikuntzarik bada. Lehen ezinbestekoa zen usurbildarra izatea. Honakoan, Euskal Herriko 18 urtetik gorako edonork har dezake parte.

- Lehiaketa honetan Euskal Herriko 18 urtetik gorako edonork har dezake parte.

- Lanak, ekainaren 15a baino lehen, honako helbidera bidali behar dira: Usurbilgo Udala (XXX. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Enparantza. 20170 Usurbil.

- Lanek inoiz agitaratu gabeak izan

beharko dute.

- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150. Hirugarrenak, 100.

- Aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake.

- Lanek gutxienez 8 bertso beharko dituzte eta gehienez 10. Originarekin batera, hiru kopia bidali behar dira.

- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

- Epaimahaiaren erabakia uztailearen 1ean jakingo da Santixabel jaietako bertso saioan.

Antolatzailea: Bota Punttuba, Sagardo Egunaren Lagunak.

## Sagardoa nola bota ikasteko tailerra


**S**agardo Egunean botatzaile bezala jardun nahi duten guztientzat ikastaroa antolatu du Sagardo Egunaren Lagunak taldeak. Hau irakatsiko da: beteberrak, ariketa praktikoak, hobetze teknikak. Maiatzaren 13an larunbata, Sutegin (arratsalde, 16:30-19:30). Ez da aurretik izena eman behar, egunean bertan Sutegin azaldu eta kito.



## Maiatzaren 12an, dastatze afaria

**A**urreko alean aipatu genuen bezala, sagardo dastatze afaria egingo da aste honetan Mahaspildegia elkartean. Izena emateko epea irekita dago eta Xabier Kamio enologoa izango da dastatze afaria gidatuko duena. Sagardo ezberdinak dastatuko dira.

Sagardo dastatze afaria Mahaspildegia elkartean egingo da maiatzaren 12an ostirala, 19:30ean hasita. Prezioa: 21 euro. Izenematea, honako telefono zenbakira deituz: 661 122 568 (17:00etatik aurrera).



# Xabier Tello sukaldaria

## “Sagarrak joko asko ematen du”

**S**agardo Egunaren Lagunak taldeak sukaldaritza ikastaro bat antolatu du, baina ez da ikastaro arrunta: sagar, sagardo eta sagarkien ingurukoa da. Ikastaroa Edorta Agirrek argitaratutako “Sagardoa Platerean” liburuan dago oinarrituta eta Xabier Tello sukaldari usurbildarra aukeratu dute irakasle lanetarako. Jada bi saio egin dituzte Agerialden eta oraindik beste hainbeste gelditzen dira.

**NOAUA!** Zertan oinarritzen da ematen ari zaren ikastaroa?

**Xabier Tello.** Ikastaro txiki bat da, monografikoa, lau saio soilik dituena. Saio bakoitzeko hiru plater egingo ditugu. Helburua, oro har, sagardoaren, sagarraren eta sagarkien mundua bultzatzea da, hauen bidez platerak prestatuz. Sagar eta sagardoaz gain askoz gehiago ere ez dago, baina ezin dira ahaztu sagar-ozpina eta sagardo-ozpina, edo sagardoza, hau da, sagar likorea. Eta lau osagai horien bitartez prestatuko ditugu hainbat plater. Guztietan osagaiak antzekoak diren arren, plater mota ezberdinak egitea litzateke helburua, sagarra, sagardoa eta sagarkiak presente edukita. Horregatik egin da ikastaro laburra, oso errepikakorra litzatekeelako bestela. Hobe da agian lau saio on ematea, saio asko eta funts gutxikoak egitea baino.

**N.** Zer du hain berezia sagarrak bere inguruan ikastaro bat antolatzeko?

**X. T. Guk,** sukaldari bezala, lurraren produktuak bultzatu behar ditugu. Bultzatu eta baita nolabait indartu ere. Sagarrak, gainera, dastamen ezaugarri asko eskaintzen dituzte, gauza gozoak eta emaitza onekoak egin daitezke. Izan ere, duela urte batzuk, 1989an, Menorcan egon nintzen lanean jatetxe batean eta bertan bakailaoa sagardotan egiten genuen. Eta jatetxerako sagardoa hemendik bidaltzen zidaten. Madril eta Bartzelonan ere asko erabiltzen da orain



SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK TALDEAK ANTOLATU DUEN IKASTAROKO IRAKASLE DA XABIER TELLO.

sagardoa, eskaera handia dago. Errekurtsoak ustiatzeko garaia da orain.

### XABIER TELLO

“Madril eta Bartzelonan asko erabiltzen da orain sagardoa, eskaera handia dago”

**N.** Sagardoa sarritan sagardotegiko menuarekin bakarrik lotzen dugu. Ze joko ematen dute sagarrek, sagardoak eta sagarkiek sukaldean?

**X. T.** Denerako ematen dute joko. Adibidez, entsalada bat, haragi plater bat, arraina edota postrea egiteko balio dezake sagarrak. Ozpina erabiltzerakoan ere sagar-ozpina erabil daiteke, eta emaitza ezberdina izango da platera berdina bada ere.

**N.** Zer moduz joan zen ikastaroaren lehen saioa?

**X. T.** Oso ondo, hamabi pertsona etorri ziren. Arrakastatsua izan da, jendea

oso gustura atera da, niri gutxienez hori iruditu zait. Oso plater originalak egiten ari gara, jatetxetako platerak, landuak. Lehenengo saioan, adibidez, kukulu entsalada bat egin genuen, sagarra, intxaurrak, Idiazabalgo gazta eta izokin ketua erabiliz. Eta baita bakailao-tartalata bat, piperrada gratinatu eta sagardo saltsarekin. Elaboratutako platerak dira, baina ez konplikatuak.

**N.** Helduentzako sukaldaritza ikastaroak ematen ari zara Agerialden. Jende asko animatzen al da sukaldaritza ikastera?

**X. T.** Bai, eta asko gustatzen zaie ofizioa. Gainera aurrera ateratzen dira, eskaera handia baitago. Guk graduatua ez daukaten pertsona formazioa ematen diegu, ofizioa erakusten diegu eta graduatua ateratzen laguntzen diegu. Enpresa batera joaten dira praktikak egitera eta irteera profesionala ematen diegu. Oso gustura nago, gazteak aurrera ateratzen direla ikusten dut-eta.

## Gero eta bisita gehiago jasotzen ditu noaua.com webguneak

**E**statistikek hala diote. 2005eko urtarriletik 2006ko martxoaren bukaera arteko bilakaera goranzkoa izan da. Bataz beste, hirukoiztu egin da bisita kopurua. Orain, 400 bisitatik gora jasotzen ditu egunero noaua.com webguneak.

Webguneko albistegia edizio jarraituan ipini genuenetik, gero eta gehiago dira noaua.com webgunera jotzen dutenak. Atal gehiago ere baditu web orrialdeak: baserrien liburuari eskainitakoa da bisitatuena.

Posta elektronikoa zabaltzeko auke-



**NOAUA.COM WEBGUNEAK 400 BISITA JASOTZEN DITU EGUNERO.**

ra ere eskaintzen du noaua.com webguneak. Zorion-agurrak ere biltzen dira NOAUA!ren atarian.

## Poxpolo eta Mokolo pailazoak Zubietan

**A**urreko alean iragarri genuen bezala, Poxpolo eta Mokolo pailazoekin hasiko da aurtengo Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua. Zubietako frontoian izango ditugu maiatzaren 13an larunbata, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

“Zirkoa” ikuskizuna aurkeztuko dute Poxpolo eta Mokolo pailazoez Zubietan. Hori maiatzaren 13an izango da. Maiatzaren 27an, karaokearen txanda izango da. Santuenean egingo den ekitaldian, gaur egungo eta aspaldiko euskal kantuak abesteko aukera izango da. Baina hori maiatzaren 27an gertatuko da. Lehen hitzordua Zubietan dugu, maiatzaren 13an larunbata: Poxpolo eta Mokolo.



**ZUBIETAN HASIKO DA PLIS, PLAS, TXALO TA JOLAS EGITARAUA.**

## Amaitu da argazki ikastaroa



**N**OAUA!k egindako deialdia ez zen oharkabean pasa. Hamaika lagunek hartu zuten parte argazki digitalari buruzko ikastaroan. Ander Gillenea argazkilariak zuzendu zuen ikastaroa.

**txirriStra**  
 KONTSEJU ZAHARRA 13  
 943 300 400  
 pintxoak  
 ogi tartekoak  
 plate konbinatuak  
**TABERNA**

**Zendoia**  
  
 Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

**LATXA**  
*kesteak denda*  
 Janari prekozinatuak  
 Kongelatuak  
 Bertako produktuak  
 Edifikazioa 2. Urtealdea - Tel. 996 301 803

## Usurbil FT taldearen denboraldiko azken partida

**U**surbil Futbol Taldea denboraldiko azken txanpan da. Emakumezkoen eta 2. jubenil mailako taldeek amaitu berria dute 2005-2006 denboraldia eta Lehen Errejonial mailako jokalariek datorren asteburuan jokatu dute ligako azken neurketa. Harane futbol zelaiko eraberritze lanen kontuarekin Zubietan jokatu behar izan dituzte etxeko partidak, baina hala ere, orohar, denboraldi ona burutu dute guztiek.

Lehen Errejonial mailako taldeak larunbatean jokatu du denboraldiko azken neurketa. Usurbildarrak Preferente mailara igotzeko aukera ematen duten bi lehenengo postuetatik kanpo gelditu ziren duela hilabete pasatxo, baina hala ere Irunen Mariñoren aurka jokatu duten partida irabaziz gero, Usurbil Futbol Taldeak maila honetan lortu izan duen posturik onena hobetu dezake.

Pasa den asteburuan Zubietan Eneko Mujika, Mikel Otaegi, Iñigo Etxaniz eta Eneko Harreguyk lortutako golei esker Lasarte-Oriako Ostadar taldea 4-0 gainditu ondoren sailkapeneko 6. postuan jarraitzen dute usurbildarrek. Horixe da herriko taldeak inoiz lortu duen posturik onena, baina aurretik dituzten bi taldeak bi puntura daudenez, 4. postua eskuratzeko aukera dute oraindik.



LARUNBATEAN AMAITUKO DU DENBORALDIA ERREJIONALEKO TALDEAK.

Hala ere, denboraldi ona burutu du talde nagusiak. Denboraldi osoan 4 partida besterik ez dituzte galdu, bakarria bigarren itzulian, eta berdindu dituzten 14 neurketetatik batzuk irabazi izan baliutuzte lehenengo bi postuak gertu izango lituzkete denboraldi amaiera honetan.

Bigarren Jubenil mailako taldeak, berriz, pasa den asteburuan jokatu zuen denboraldiko azken neurketa. Urtzi Izagirre eta Iker Agirrezabalagak zuzendutako taldeak Lehen Jubenil mailara igo ahal izateko fasea jokatzeko txartela lortu zuen denboraldiko lehen zatian, baina fase honetan ez dute lehenengo postuetan ibiltzeko aukerarik izan.

Fase honen hasieran lehenengo garaipena lortzea asko kosta zitzairen eta

ondoren ere, lesioak tarteko, nahikoa irregularra izan da talde hau. Hala ere, azken bi jardunaldietan maila ona eman dute. Igoera fasean lehen postuan amaitu duen Luberriren aurka 3-3 berdindu zuten duela bi aste, eta pasa den asteburuan 3-5 irabazi zuten bigarren postua eskuratu duen Alde Zaharraren aurka.

Emakumezkoen taldeari dagokionez, lehia egin duen 10. denboraldi hau ez da onenetakoa izan. Hasierako ligan ez ziren gaizki ibili, baina Kopa txapelketan jokalaria garrantzitsuak falta izan dituzte eta azken bigarren postuan amaitu dute.

JOSU ARANBERRI

### Usurbil aurrera Herri Arteko Txapelketan

**U**surbilek Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketako final zortzirenak jokatzeko txartela lortu zuen pasa den larunbatean Zumarragan. Usurbilen jokaturako joaneko norgehiagokan ia erabakita utzi zuten kanporaketa, eta itzulikoan ez zuten hutsik egin.

Usurbilen 3-0 irabazita joan ziren Zumarraga aldera, eta Beloki pilotalekuan 2-1 nagusitu ziren herriko pilotariak. Kadete mailan, Xabier Santxo infantilak eta Eñaut Esnaolak 13-22 irabazi zuten Aleman eta Quina Zumarragako bikotearen aurka. Jubenil mailan, Iñigo Irastorza eta Iker Zinkunegik kanporaketako partida

bakarria galdu zuten, Biain eta Viana bikoteak 22-12 irabazi ondoren. Kanporaketako azken partida, berriz, Jabier Santxo eta Asier Arrutik 17-22 irabazi zuten Rodriguez-Intxaustiren aurka.

Honenbestez, Zegama izango dute aurrez aurre usurbildarrek final zortzirenetako norgehiagokan. Joaneko neurketak Usurbilen jokatu dira larunbat honetan 18.00etan, eta itzulikoak Zegaman hurrengo asteburuan.

Pala modalitateko Herri Arteko Txapelketan, berriz, Usurbilek 0-2 (18-35 eta 28-40) galdu zuen Andoainen aurka Zubietako pilotalekuan jokaturako joaneko norgehiagoketan.

### Eskubaloi partida

**P**asa den asteburuko atsedenaldiaren ondoren, jubenil mailako eskubaloi taldeak Oiardo kiroldegian jokatu du larunbat honetan Gipuzkoako Kopa Txapelketako laugarren jardunaldiari dagokion partida. Oraingo honetan Eibarko Arrate taldea izango dute aurrez aurre, eta sailkapenari begirada bat emanez gero ez dute partida erraza izango. Eibartarrak sailkapeneko lehen postuan kokatuta daude jokaturako hiru neurketak irabazita eta usurbildarrak 3. postuan daude partida bat irabazi eta bestea galduta.

## Udarregi ikastolako gazteak Errobi eta Bidasoako uretan

Aurten ere, ikastolako DBH hirugarren mailako ikasleak Nafarroa Behera eta Garaiko lurraldeetan izan gara: lurra zapalduz eta uretan murgilduz.



eta  
gauean...  
lotara?





## Agenda

### Maiatzak 12, ostirala

-Xabier Kamiorekin sagardo dastatze afaria Mahaspildegín. 19:30ean.  
-JC Perez kantaria Sutegin. 22:30ean.

### Maiatzak 13, larunbata

- Errauste planten aurkako koordinakundeak deitutako manifestazioa. 18:00etan Donostiako manifestazioan.  
-Sagardo botatzaile tailerra Sutegin, 16:30-19:30.  
-Poxpolo eta Mokolo Zubietan. 17:00.  
-"Larru haizetara" 22:30ean Sutegin.

### Maiatzak 14, igandea

San Ixidro. Goizean azoka, haurrentzako ekitaldiak eta herri-kirolak (ikus 7. orrialdea).

### Maiatzak 15, astelehena

- San Ixidro Nekazarien Eguna. Meza, hamaiketako eta bazkaria Saizarren (ikus 7. orrialdea).

### Maiatzak 19, ostirala

Pirineos Jazz Taldea 20:00etan Sutegin. Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 21, igandea

Sagardo Eguna.

## Herri Urratsera autobusean

Udarregi ikastolak maiatzaren 14an ospatuko den Herri Urrats festara joateko autobusa antolatu du. Autobusa 9:00etan aterako da udaletxe aurretik eta 19:00etan bueltatuko da. Prezioa 8 euro. Izen-ematea, Udarregi ikastolan bertan, maiatzaren 12a arte (943 36 12 16).

## Literaturaren txokoa

### Suspentsea arotzaren eskuetan

Irakurlea «lepotik ihelduta» eraman nahi izan du Alberto Ladron Aranak «Arotzaren eskuak» (Elkar) nobela berri honetan, hasieratik bukaeraraino.



«Polizia nobela bizia egin nahi nuen», adierazi zuen liburuaren aurkezpenean, «eta irakurleari bakerik ez ematea zen nire helburua. Eleberria ustekabeekin betetzea, eta amaieran, gainera, kolpe txiki bat».

«Ez da literaturaren funtzio bakarra irakurlearen jakin-mina piztea» gaineratu du Xabier Mendiguren editoreak, «baina nobelak idazteko modu eskeragarria bada behintzat». Suspentsezko istorioa da: ia ezagutzen ez zuen aitona herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu griseten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitona iraganaz galdetzer behartuko duena.

## Egin kontu

### Erraustearen aurka eta erreferendumaren aldeko manifestazioa egingo da Donostian

Maiatzaren 13an larunbata, Merreferendumaren aldeko manifestazioa egingo da Donostiako Boulevardean Erraustetaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak deituta. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da manifestazioa. Deialdiarekin bat egin dute ondoko sindikatu, elkarte eta alderdik: EHNE, LAB, CCOO, ELA, STEELAS, ESK, Eguzki, Ekologistak Martxan, Haritzalde,



Greenpeace, EB, Aralar, Baga Boga, Zutik, Plataforma Vertedero de San Marcos.

## Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 11, osteguna  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 12, ostirala  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 13, larunbata  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 14, igandea  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 15, astelehena  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 16, asteartea  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 17, asteazkena  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 18, osteguna  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 19, ostirala  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 20, larunbata  
Iturralde, Bordaberi 1 Usurbil  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 21, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 22, astelehena  
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,  
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

## Telefono interesgarriak

- Udala 943 37 19 51
- Udaltzaingoa 943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak  
943 37 01 48
- Eusko Tren 943 47 09 76
- Anbulategia 943 36 20 13
- Ikastola 943 36 12 16  
Agerialde 943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar)  
943 37 40 61
- Kirolegia 943 37 24 98
- Zumarte 943 37 15 94
- Etumeta 943 37 20 01
- Taxi geltokia 943 36 21 78
- DYA 943 46 46 22

- Gure Pakea 943 37 32 28
- Gure Elkarte 943 37 17 51
- Arrate Egoitza 943 36 63 40
- Bake epaitegia 943 37 23 36
- Oa farmazia 943 37 60 76
- Iturralde farm. 943 36 33 95
- Zubieta Herri Batzarra  
943 37 20 77
- Argindarra 943 47 09 76
- NOAUA! 943 36 03 21
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112

## ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile (bungalow) alokatzen da. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, bi logela dauzka, terraza eta jardina. Aste buruak eta uda. Ekonomikoa. 685 721 652 edo 665 734 009.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia da esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat

eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

Aginagako Manterola gasolindegian oporretako ordezkapenerako pertsona bat behar da, ekainetik urrira lan egiteko. Interesatuak curriculum argazki batekin utzi gasolindegian, edota deitu 943 36 13 95 zenbakira (Garbiñe).

- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.
- Emakume bat behar da etxeko lanetarako.650947142
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. Interesatuak deitu 661972670 telefonora.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Tf: 656 712 340 (Luis).
- Euskadiko selekzioko txandalaren jertsea galdu zait, frontoi inguruan. Aurkitu duenak deitu 943 366 845.
- Urrezko pultsera bat galdu zait Artzabalgo frontoi inguruan. Aurkitzen duenak NOAUA!ra eraman dezala. Eskupekoa emango da.
- Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatete jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukalde. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf: 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!

## Zorionak Josu eta Aitziber!

Aurten ere biok maiatzaren

15ean urteak

batera egin behar, hau marka! Ondo pasa ta kontuz moxkortu gabe.



## Zorionak Olatz!

Maiatzaren 29an 7 urte

beteko dituzu. Muxu

handi bat etxekoen

partez eta ondo pasa!



## Zorionak

## Lorena eta

## Leire!

Maiatzaren 3an

eta 23an dira

zuen urtebetetze egunak. Muxu bat gurasoen partez eta ondo pasa!



## JAIOTZAK

- Aitor Mindegia Plaza  
apirilaren 26an.

- Irati eta Saioa Izeta Enriquez  
apirilaren 26an.

## HILDAKOAK

Elias Sagardia Salsamendi  
Maiatzaren 8an hil zen  
80 urterekin. Kaleberri.



## HILDAKOAK

Inaxio Labaka Etxeberria  
Maiatzaren 3an hil zen 73  
urte zituela. Txokoalde.



Aitona nola geratu zara  
Ohe txuri hortan mutu?  
Katxe, Irabi eta Erroizpe  
Galdezka ari zaizkigu.  
Andatzen goran goazenean,  
Joizkiguzu bi kuku  
Eta zuk maite gintuzun denok  
Irri bat egingo dugu.

teilatuk eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

**Obaba kalea 29 · ASTEASU**  
☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

**MIZEL IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA

943 365 095  
609 068 111

5012 ARBI ETXEA 37 KALEZAR

**ERRAZKIN**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA

kale Nagusia, 1  
Tel./Faxo: 943 365 125  
Móbil: 629 420 565 - 649 435 470

maiatzaren

11tik aurrera

**berria berria = berria<sup>2</sup>**

**KAZETA eredu Berria**

berritzailea, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

**GUREAN ULERTUKO DUZU**

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

# San Ixidro'06

USURBILEN • MAI ATZAK 14 eta 15

**Igandea 14: 11etatik - 14etara bitartean**  
**AZOKA, HERRI KIROLAK eta HAURRENTZAT EKITALDIAK.**

**HERRI KIROLAK**, Eskualdeetako aizkolarari lehia:  
Gipuzkoatik: Agite - Zubizarreta. Bizkaitik: Bihurri - Mendleta.  
Arabatik: Zubillaga - Llanos. Nafarroatik: Flores - Rodriguez.  
Harrijasotzallea: Goenatxo II.

**UDABERRIKO LOREAK ETA BARATZEKO**  
**LANDAREA EROSTEKO AUKERA PAREGABEA!!!**

**Astelehena 15, San Ixidro eguna:**

**MEZA NAGUSIA 11:00etan.**

**Ondoren hamaiketako ANDAZPE elkartean.**  
(Bertsolariak eta trikitilariak)

**Baserritarren Bazkaria, 14:00etan.**

**SAIZAR sagardotegian, 25 €tan.**

